

Ermuko altuera jausiko iragana eta etorkizuna

JAVI VILLALOBOS ETA ALEX SOTO, ERMUKO ATLETISMOKO IRAGANA ETA ETORKIZUNA. HORIXE DA BI ATLETA GAZTE HAUEK ADIERAZTEN DUTENA. JAVIK, 31 URTE DITU, 5 ALDIZ ESPAINIAKO ALTUERA JAUSIKO TXAPELDUNA IZANA, AZKEN URTEETAN LESIOEKIN EZ DU ZORTERIK IZAN ETA PIXKANAKA GOI MAILAKO LEHIAKETETATIK URRUNDU DA. ALEXEK 17 URTE EGINGO DITU ABENDUAN. DUELA BI URTE, KADETE MAILAN ESPAINIAKO TXAPELKETA ETA ERREKORRA EZARRI ZUENETIK BERE IBILBIDEAK GORA EGINDU. DUELA GUTXI MUNDUKO JUBENIL MAILAKO TXAPELKETAN BRONTZEZKO DOMINA IZAN DA BERE AZKEN LORPENA.

-Bata gaztea eta indartsua, besteak esperientzia...

Javi: Nik egin dut nire ibilbidea. Ia nire bizi osoa honetara bideratu dut... denborak ez du barkatzen, kirol honen alde onak, txarrak ezagutu ditut. Halere ez naiz damutzen.

Alex: Javi eta Antonio bezalako lagunak alboan izatea ezinbestekoa da niretzat, kirol honetan zerbait izan nahi badut. Beraie esker nago nagoen tokian.

-Zuk Alex, altuera jausia lagatzeko asmoa ere izan duzu...

Alex: Iazko urtea gogorra egin zitzaidan. Nire ibilbideak etena izan zuen... Ez nuen gora egiten. Munduko txapelketa hasi baino hilabete lehenago uztera nindoala esan nion Antoniori. Handik hilabetera medailarekin itzuli nintzen etxera...

-Zuen atletismo denboraldia zertan datza?

Javi: Espainia mailan ohorezko atletismo lehiaketan aritzen gara biok. Ni Iruñeko Scania taldearekin. Babestu eta babestu gabeko aretoetan aritzen gara. Liga eran. Abenduan hasi eta ekaina bitartean.

Alex: Niri dagokidanez, Lleidako talde batek fitxatu nau aurten. Ohorezko liga hori amaitu ostean, Espainiako eta Euskadiko txapelketak jokatzeko ditugu.


-Bata ikasten bestea lanean... Zenbat ordu eskaintzen dizkiozue honi?

Javi: Ni sasoi batean buru belarri aritzen nintzen. Nire bizitza atletismora bideratuz. 2-3 aldiz ere entrenatzen nuen zenbaitetan... orain, besteek adina lan egiten dut. Egutero 2 orduko saioa.

Alex: Ni ikasten ari naiz baina, nik ere 2 ordu eskaintzen dizkiot. Emaizak nahi badituzte ez daukat beste biderik.

-Zeintzuk dituzue hurrengo erronkak?

Javi: Adinean ere aurrera noa eta ahal dudana bitartean jarraitzeko asmoa dut. Belauneko lesioekin ez nabil ondo baina



ezagutzen ditut nire mugak. Zer egin dezakedan jakinez gero, errezagoko segiko dut. Ez dut berriro 2.28 metroko jausia egingo baina ea maila polita eskaintzen dudana.

Alex: Aurten oso urte ona izan da. 2.18 metroko altuera garaitu dut eta hori nire adinerako izugarritzko marka da. Dena den, lasai joan beharra daukat. Datorren urtean, Txinan Olinpiadak dira eta han egotea ametsa litzateke.

ANTONIO CID (Entrenatzailea)

"Villalobos eta Sotoren ibilbidea oso gertutik jarraitu ditut. Javi-ren kasuan, esan genezake esperientzu bateko lehengaia izan zela. Dakigun dena ikasi dugu berarekin. Guk ere ez genekien prestaketei buruz ia ezer, instalakuntzak ere ez ziren oraingoak... gauzak asko aldatu dira. Javiren dohai nagusia berarengan izan duen konfiantza. Buruz indartsua da. Alexek hori du ahulena, burua eta konfiantza eza. Oraingo belaunaldi berriek duten gabezia da hori. Garaiak aldatu dira kirolean. Altuera jausian, ez dago beste kirolean dauden dirutzak eta horrela ez da erraza izar bihurtzea".

KIROL MEDIKUNTZA

indartu

ERA GUZTIETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK

- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net